

**Jantokian, bazkaltzeko orduan, behar-beharrezkoa da guztion laguntza giro lasaia eta osasuntsua lortzeko. Horretarako, ezinbestekoa da jantokian gauden guztiok oinarrizko arau batzuk betetzea**

- 1.- **PUNTUALITATEA** zainduko dugu. Ikasle asko gara jantokian bazkaltzen dugunok; hortaz, sarrera eta irteera mementoak errespetatuko ditugu.
- 2.- **LASAITASUNEZ** sartuko eta irtengo gara jantokitik, arrapaladan eta oihu egin gabe.
- 3.- **ERRESPETUA** izango dugu jantokian gauden ikasle, irakasle eta langile guztiekiko: mesedez, eskerrik asko... esamoldeak erabiliz.
- 4.- **JARRERA EGOKIA** izango dugu mahaian eserita gaudela: zuzen eserita, ahoa itxita...
- 5.- **HIRU PLATERAK** -lehenengoa, bigarrena eta postrea- gutxienez, plater erdia jango dugu, horretarako behartuak izan gabe eta janaria mespretxatu gabe.
- 6.- **JANTOKIKO ALTZARIAK ZAINDUKO DITUGU**: mahaiak, jesarlekuak, jateko tresnak...egoki erabiliz, ezer bota edo apurtu gabe.
- 7.- **TELEFONO MUGIKORRAREN ETA BESTELAKO DISPOSITIBOEN ERABILERA**: Ikastolaren eremu guztietan (geletan, komunetan, jantokian, patioetan, aldageletan ...) eta ikastolak antolatutako kanpo ekintzetan ezin da eskuko telefonorik ezta MP3, MP4, iPod eta abarrekorik piztuta izan ezta begi bistan ere; horrela izatekotan kendu egingo da eta gurasoei emango zaie.
- 8.-**JARRERA DESEGOKIEN** ondorioz jasotako etxerako oharrak edo agindutako lanak zintzotasunez onartuko ditugu, eta aurrerantzean gure jarrera hobetzeko konpromisoa hartuko dugu.
- 9.-**JANTOKIAREKIN ZERIKUSIA DUTEN OHARREKIN** arduratsuak izango gara eta etxean erakutsiko ditugu.
- 10.- **BAZKALORDUAN , JANTOKITIK KANPO ERE** (jolastokian...) portaera egokia izango dugu. Atsedenaldi honetan, gurasoen baimena izan gabe, **EZIN IZANGO DUGU IKASTOLATIK ATERA**.